

ERABAKIA, 2023ko APIRILAREN 28koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, 2023ko ORDAINSARIEN IGOERA AGINTZEKO DENA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrerak, 19. artikuluan ezartzen ditu sektore publikoko langileen gastuen arloko jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa.

Aipatutako artikulua honako hau dio bigarren atalean:

1. *En el año 2023, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,5% por ciento, respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.*
2. *Asimismo, se aplicarán, en su caso, los siguientes incrementos respecto de las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022 y con efectos, en ambos casos, de 1 de enero de 2023:*

- a) *Incremento vinculado a la evolución del Índice de Precios al Consumo Armonizado (IPCA). Si la suma del IPCA del año 2022 y del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023 fuera superior al 6 por ciento, se aplicará un incremento retributivo adicional máximo del 0.5 por ciento.*

A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.

- b) *Incremento vinculado a la evolución del Producto Interior Bruto (PIB) nominal en el año 2023. Si el incremento del PIB nominal igualase o superase el estimado por el Gobierno en el cuadro macroeconómico que acompaña a la elaboración de la presente ley de Presupuestos, se aplicará un aumento retributivo complementario del 0.5 por ciento.*

A estos efectos, una vez publicado por el INE los datos de avance del PIB de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE:

Bigarrena.- Abenduaren 23ko 15/2022 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 19. artikuluan xedatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsariak.

19. artikuluko 1. atalak dioenez, sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarriko xedapenak eragotzi gabe, 2023. urtean, lan kontratadunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guttizko ordainsariak ezin izango dute % 2,5etik gorako gehikuntza orokorrik izan 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzintasunari dagokienez, bai lanaldi araubideari dagokionez. Bestalde, abenduaren 23ko 15/2022 Legeko 19. artikulua 7. atalean xedatzen du ordainsari osagarriak ezin izango dutela % 2,5etik gorako gehikuntza orokorrik izan 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, hargatik eragotzi gabe programa bakoitzari atxikitako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako

helburuen betetze mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz egin daitezkeen aldaketak.

Lan kontratudun langileak direla eta, 19. artikuluko 9. atalak dio langile horien soldata masak 2023. urtean ezin izango duela %2,5etik gorako gehikuntzarik izan 2022an ezarritakoaren aldean, hargatik eragotzi gabe lanpostuaren edukian izandako aldaketetatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruaren aldaketetatik, programari ezarritako helburuen betetze mailetatik, eta lana antolatzeko sistemen edo sailkapen profesionalaren aldaketatik eratorritako gehikuntzak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gerenteak eskumena dauka gai honetaz erabakiak hartzeko, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia dela bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko).

Bigarrena.- 1. Abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrenak, 19. artikuluko bosgarren atalean dioenaren arabera, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuko 76. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien funtzionarioek, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio eremuan sartuta badaude Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean edo hura garatzeko emandako Funtzio Publikoari buruzko legeetan xedatutako moduan, zenbateko hauek jasoko dituzte hamabi hilekotan zatiturik, soldata eta hirurteko gisa, 2023ko urtarriletik abendura arteko nomina arruntetan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata (€)	Hirurtekoak (€)
A1	15.459,72	595,08
A2	13.367,76	485,28
B	11.685,24	425,76
C1	10.036,92	367,32
C2	8.353,56	250,08
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	7.645,68	188,16

2. Aurreko atalean aipatzen diren funtzionarioek zenbateko hauek jasoko dituzte aparteko ordainsari bakoitzean, soldata eta hirurteko gisa, 2023ko ekain eta abenduan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata (€)	Hirurtekoak (€)
A1	795,00	30,61
A2	812,45	29,48
B	841,63	30,68
C1	722,91	26,42
C2	689,78	20,62
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	637,14	15,68

Hirugarrena.- Irakasle funtzionarioen kasuan, eta lanpostu mailako osagarriari dagokionez, aplikagarria da abenduaren 23ko 31/2022 Legeko 22.Bat.c) artikuluan jasotakoa (2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legea). Hortaz, hau da ordainsari maila bakoitzean jasoko den zenbatekoa:

Maila	Zenbatekoa
30	13.504,20
29	12.112,56
28	11.603,52
27	11.093,76
26	9.732,96
25	8.635,20
24	8.125,80
23	7.617,00
22	7.107,24
21	6.598,56
20	6.129,48
19	5.816,64
18	5.503,68
17	5.190,48
16	4.878,24
15	4.564,68
14	4.252,20
13	3.938,88
12	3.625,68
11	3.312,48
10	3.000,00

Laugarrena.- 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, lan kontratudun langileen soldata masa ezingo da igo % 2,5 baino gehiago, 2022ko abenduaren 31n indarrean zegoenaren aldean.

Bosgarrena.- Osagarri pertsonalak eta aldi baterakoak eta zerbitzu ordainak beren araudi espezifikoaren arabera arautuko dira, eta, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, haien kopuru indibidualak ezingo dira igo % 2,5 baino gehiago, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenaren aldean.

Halaber, ez zaie aplikatuko erabaki honetan adierazitakoa ordainsarien igoera orokorraren bidez eguneratu ezin diren ordainsari kontzeptuei, aplikatu beharreko araudiak dioenarekin bat etorrita.

Seigarrena.- AZPko funtzionarioen kasuan, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 79.1.a) artikuluan araberak, honako hau izango da lanpostu mailako osagarriari dagokion zenbatekoa 2023. urtean, maila bakoitzean. Kopuru hori hamabi hilekotan zatiturik ordainduko da:

Maila	Zenbatekoa
30	19.399,92
29	17.244,00
28	15.411,96
27	13.687,68
26	12.071,16
25	10.454,64
24	9.807,96
23	9.107,64
22	8.460,72
21	7.814,52
20	7.275,72
19	6.844,44
18	6.413,40
17	6.035,52
16	5.658,72
15	5.281,56
14	4.904,52
13	4.527,00
12	4.150,08
11	3.772,80

Zazpigarrena.- Konfiantzako langileen ordainsariak %2,5 gehituko dira 2023ko urtarrilaren 1etik, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, hargatik eragotzi gabe antzinasuna dela-eta dagokiena. Adierazitakoagatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Agindua ematea 2023ko ordainsariak igotzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, zuzenbideko bigarren oinarritik zazpigarren oinarriara arte jasota dagoen moduan.

Bigarrena.- Argitaratzea erabaki hau UPV/EHUren webguneko Gardentasun Atarian.

Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko GERENTEA

ERREKURTZOAK

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta kontra egiteko administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena: 8. artikulua).